

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

Arabako Biltzar Nagusietako 2017rako enplegu publikoaren eskaintza

Batzar Nagusietako Mahaiak, abenduaren 19an egindako bileran, indarrean den Langileen Estatutuan xedatutakoaren arabera, erabaki du lan-eskaintza onestea eta Arabako Batzar Nagusien Aldizkarian eta ALHAOn argitaratzea.

GOITEKNIKARIEN KIDEGOA. 2 lanpostu, txanda librea.

Legelari lanpostu 1. Unibertsitateko goi titulazioa Zuzenbidean. 3. hizkuntza-eskakizuna, derrigorrezkoa.

Itzulpen, zuzenketa eta interpretazio teknikariaren lanpostu 1. Unibertsitateko goi titulazioa. TG 4. hizkuntza-eskakizuna, derrigorrezkoa.

KUDEAKETAKOTEKNIKARIEN KIDEGOA. Lanpostu 1, barne sustapeneko txanda.

Kudeaketa ekonomikoko teknikaria. Titulazioa: Ingeniaritza teknikoa, unibertsitate diplomatura, gradua, artitektura teknikoa, hirugarren graduako lanbide-heziketa edo parekoa, edo edozein lizentziaturako hiru kutso burutu izatea. 3. Hizkuntza-eskakizuna, ez derrigorrezkoa.

LAGUNTZAILETEKNIKOEN KIDEGOA. 1 lanpostu, txanda librea.

Mandatari-gidari lanpostu 1. Titulazioa: derrigorrezko bigarren hezkuntzako graduatua. 2. Hizkuntza-eskakizuna, derrigorrezkoa.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko abenduaren 26a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA